

# eureka


LEHIAKETA

ANTOLATZAILEAK:

**berria**

**oreka i.t.**  
corporate balance

Parte hartzeko  
argibideak

The background of the page is a complex abstract graphic. It features a central sunburst pattern of light rays emanating from a point on the horizon. The landscape is composed of several layers: a top layer with a pattern of orange and black dots, a middle layer with a solid tan color, and a bottom layer with a dark grey, cracked, and layered appearance, suggesting a canyon or a broken surface. The overall color palette is dominated by shades of tan, orange, black, and dark grey, with a maroon border at the top and bottom.

## Aurkibidea

1.	IZEN EMATEA .....	3
2.	ZER PROIEKTU EGINBEHAR DEN .....	3
3.	PROIEKTUA BIDALTZEA .....	4
4.	SARIAK .....	5
5.	OHARRAK .....	6

## 1. IZEN EMATEA

Izen emateak *orekait.com* webguneko Eureka lehiaketarako egindako sailaren bidez soilik jasoko dira. Pauso hauek eman behar dira:

1. Bete ezazu izena emateko galde sorta.
2. Berretsi helbide elektronikora bidaliko zaizun baieztapena.
3. Sartzeko, erabili zeuk aukeratutako erabiltzailea eta pasahitza.
4. Webgunearen orri pribatu batera sartuko zara, non beharrezkoak diren informazio eta baliabide guztiak aurkituko dituzun. Hor aurkituko duzu proiektua entregatzeko behar duzun esteka ere.

Izen ematea eta proiektua bidaltzea ez dira aldi berean egin behar, noski.

## 2. ZER PROIEKTU EGIN BEHAR DEN

Programazio garapen oso bat egitea eskatuko dugu. Horretarako, *Baliabideak* botoian eskuragarri egongo dira eskatzen ditugun oinarritzko baldintzak betetzeko behar diren baliabideak.

Horretaz gain, *Programatzeko argibideak* botoian aurkituko dituzu garatu behar den programaren xehetasunak, baldintzak eta oinarritzko funtzionalitateak.

Dokumentu horretan, programak egin behar dituen gutxieneko funtzionalitateak ageri dira, baina irudimena sarituko da. Beraz, dokumentu horretan eskatzen diren minimoetatik at joatea izango da gakoa. Irabazlea hautatzeko orduan, programari gehitu ahal zaizkion funtzionalitate berriak edukiko ditugu kontuan. Beraz, eragin sormenari!

### 3. PROIEKTUA BIDALTZEA

Proiektua onartzeko, ZIP artxibo bakarria bidali beharko da honako eduki hauekin (100 MB gehienez):

- SAP UI5 proiektua bidali behar da, eta prest egon beharko du, epaimahaiak inporta eta azter dezan.
- SAP Lumira Discovery proiektua bidali behar da, epaimahaiak inportatu eta aztertzeko prest egon dadin.
- Proiektuaren funtzionalitatea azaltzen duen txosten bat bidali behar da, eta eskatzen diren gutxieneko puntuak bete; zehaztu egingen da hobekuntza ekar dezakeen beste edozein ezaugarri gehigarri ala funtzionalitate.
- Bidali bideo bat, proiektuaren funtzionalitatea azaltzen duena; gehienez, 2 minutukoa izanen da. SAP UI5 aplikazioaren funtzionamendutik hasita, Lumira Discovery datuen ustiatzea kontuan hartuz.

Hiru artxibo horiek dituzten proiektuak soilik hartuko dira kontuan, epaileek berrikus ditzaten.

Bai idatzizko dokumentua zein bideoa euskaraz egin beharko dira, eta plagioak edo kopiak kanporatu egingen dira. Proiektuak originalak izan behar dira.

**KONTUZ!** Programa garatzeko beharko den SAP Lumira Discovery lizentzia hilabetekoa da soilik. Beraz, behin aktibatuta, hilabete batean erabilgarria izango da.

## 4. SARIAK

### 1.000 EURO ETA BERRIA EGUNKARIAREN EGUNEROKO HARPIDETZA 6 HILABETEAN

Proiektuak entregatzeko epea amaitu ostean, Oreka IT-ko epaileek aukeratuko dute proiekturik hoberena: hau da, eskatutako ezaugarriak gutxienekoak betetzeaz gain, funtzionalitate gehigarri hoberenak aurkezten dituen hautatuko dute.

Saridunei hala jakinaraziko zaie, eta, saria jasotzeko, ezinbestekoa izango da ekainaren 21ean Oreka IT-k antolatuko duen ekitaldira agertzea. Irabazlea ezin bada joan, hurrengo irabazle bat aukeratuko da. Bai 1.000 €-ko sarientzat zein 100 €-ko sarientzat izango da aplikagarri.

### 100 €-KO HAMAR SARI

Eskatzen ditugun gutxienekoak betetzen dituzten lehen 10 partaideek 100 €-ko saria eta Berria egunkariaren asteburuko harpidetza hiru hilabetez jasoko dute: hau da, proiektuak berrikustean, funtzionalak diren lehenengo 10 IZEN EMATEAK sarituko ditugu, EZ LEHENENGO 10 PROIEKTU BIDALIAK.

Horregatik, hamar saridun horiei lehiaketa amaitzean eta proiektuak berrikustean jakinaraziko zaie.

### LAN ESKAINTZARAKO ELKARRIZKETA

Eskatutako gutxienekoak betetzen dituen proiektu guztien egileek aukera izango dute Oreka IT-n lan egiteko elkarrizketa bat izateko.

## 5. OHARRAK

- Baldintza guztiak betetzen ez dituzten proiektuak kanporatu egingen dira.
- Plagioak kanporatuko dira.
- Norbanakoek parte har dezakete, ez dira onartuko enpresen edo taldeen izenean egindako proiektuak

Zalantzak argitzeko edo informazio gehigarria eskatzeko:  
[eurekalehiaketa@orekait.com](mailto:eurekalehiaketa@orekait.com)